



GORKA MORENO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
IKUSPEGI - EUSKAL
IMMIGRAZIOAREN BEHATOKIA

EUSKARA ETA IMMIGRAZIOA: ESKOLAN DAGO PARTIDA

1. SARRERA

Artikulu honetan, euskararen eta atzerritik etorri den immigrazioaren inguruko hainbat gogoeta egingo dira. Agerikoa denez, etorkinen integrazioari buruz hitz egiten denean, hizkuntzak berebiziko garrantzia du (Europar Batzordea, 2011). Gizarteratzeko lehenengo urratsetako bat da eta tokian tokiko hizkuntza menperatzeak integrazioarako ateak ireki ditzake, bai gizarte maila zein lan merkatuan.

Gure kasua konplexuagoa da, bertan bi hizkuntza baitaude –euskara eta gaztelania Hegoaldean eta euskara eta frantsesa Iparraldean– eta horrek berezitasun batzuk dakartza euskara eta immigrazioaren arteko harremana landu nahi badugu. Horri lotuta, ezin dugu ahaztu euskararen egoera aipaturiko beste bi hizkuntzen aurrean eta horrek sortzen duen testuinguru asimetriko eta diglosikoa.

Testuingurua abiapuntutzat hartuta, hurrengo lerroetan hainbat gogoeta eta hausnarketa egingo dira euskara eta etorkinen arteko harremanaren inguruan. Lehenik eta behin, bertako populazioak dituen aurreiritzi eta estereotipoei ekingo diegu, bertako gizarteak gaiaren inguruan duen iritzia hobeto ezagutu ahal izateko.

Bigarren atalean, datu zehatzetara joko dugu, horien bidez euskara eta immigrazioaren inguruko lotura nolakoa den zehazteko eta aurreko estereotipoen aurrean errealitateak zer esaten digun jakiteko. Atal horretan, euskararen erabilera eta D eta B ereduetako matrikulazio kopuruak aztertuko dira.


Aurreko guztia aipatu eta gero, azken ondorio eta gogoetak biltzen dituen atala aurkeztuko da, betiere nahi eta ikuspegi idealista edota normatiboak alde batera utziz; eta errealitatek abiatzen den azterketa eginez.

2. IRITZI ETA USTEAK

Atal honetan, sarreran aipatu bezala, uste-iritziak aztertuko ditugu, zehazki, Euskal Immigrazio Behatokiak urtero egiten duen Barometroaren (Ikuspegi, 2018) datuak kontuan izango ditugu. Izan ere, gure gizartearen zenbait sektoretan errota egon daiteke etorkinek eten dezaketela euskara arloan egin diren urratsak edo, gutxienez, oztopo bat izan daitezkeela hizkuntzaren normalizazio prozesuan, nagusiki, oso euskaldunak diren eremu geografikoetan.



Ondoko tauletan, iritzi horiek gurean duten indarra aztertzen da. 1. grafikoan, zehazki, euskarari eta euskal identitateari lotutako hainbat baieztapen agertzen dira eta horien inguruko adostasun maila.

Euskarari dagokionez, gehienek uste dute etorkinen etorrerak ez duela euskararen garapena geldiaraziko, inkestaturen % 71,2k, hain zuzen ere. Baieztapen horrekin ados daudenak, ordea, % 20 izango lirateke.



Euskara nagusi den lekuetan, etorkinak iristearen ondorioz gutxiago hitz egingo dela uste dutenen kopurua ere oso mugatua da: % 16,8k bat egiten du baieztapen horrekin; kontra daudenak, aldiz, % 74,5 dira.

Hortaz, argi ikusten da, euskararen inguruan dauden estereotipo horiek ez direla nagusi euskal gizartearen eta beste batzuekin konparatzen baditugu –dirulaguntzak, lan-merkatua, matxismoa...– askoz ere pisu txikiagoa dutela gurean.



hermes



hermes




Bilakaera kontuan hartzen badugu -2. Grafikoa-, argi ikusten da etorkinek euskara geldiaraziko ez dutela pentsatzen dutenak gehiengo osatu dutela beti. Interesgarriena, baina, bada ikustea talde horren hazkunderik nabarmena azkeneko urteetan gertatu dela, 2014. urtetik aurrera, hain zuzen ere. Urte horretatik aurrera, ia-ia urtero % 70ren gainetik ibiltzen da iritzi honen aldekoen taldea.

Laburbilduz, datuek esaten digutenaren arabera, euskal gizarteak ez du kezkatzeko zantzu gehiegirik islatzen etorkinek euskararen garapen eta normalizazio prozesuan izan dezaketen eraginarekin. Gehiengo handi batek estereotipo horri garrantzirik ez diolarik ematen. Dena den, iritzien atalean gaude eta errealitatean den eragina aztertzea ezinbestekoa da. Era berean, interesgarria da kezka dutenen % 20ren artekoen ezaugarriak zein diren jakitea, horrela, gai honetan gehiago sakondu ahal izateko, baina eskaini ditugun datuekin, hori ezinezkoa zaigu.

3. ERREALITATE APUR BAT

Behin iritzi eta usteak alde batera utzita, datu zehaztetan sakonduko dugu eta, ildo horretan, erantzun beharreko lehenengo galdera honako hau da: Etorkinek euskaraz hitz egiten al dute? Galdera horri erantzuteko, Eusko Jaurlaritzak lau urterik behin etorkinei egiten dien inkestaren datuak ditugu (Eusko Jaurlaritza, 2019), bertan hizkuntzaren inguruan ere galdetzen delarik.

3. GRAFIKOA. ETORKINEN EUSKARA ETA GAZTELANIAREN ERABILERAREN BILAKAERA. 2010-2018.



3. grafikoan ikusi daitekeenaren arabera, aurreko galderaren erantzuna ezinezkoa da. 2010. urtearekin konparatuta -% 1,3ko erabilera-, 2018koak hobeak dira, etorkinen % 5,9k euskara erabiltzen baitu komunikazio-hizkuntza bezala. Dena den, agerikoa denez, oso kopuru txikia da, are txikiagoa gaztelaniaren erabilerekin datuarekin konparatzen badugu. Izan ere, 2018. Urtean, atzerritarren % 69,7k gaztelania erabiltzen zuen komunikazio-hizkuntza gisa, baina arlo horretan ezin dugu ahaztu latinoamerikarrek EAEn etorkin guztien % 49,3 osatzen dutela. % 36,2k beste hizkuntza batzuk -zenbait ama-hizkuntza- darabiltzate.

Normala denez, denbora igaro ahala, jatorrizko hizkuntzek indarra galdu egiten dute eta bertokoak -nagusiki gaztelania- gero eta gehiago erabiltzen dira, grafikoan ondo ikusi daitekeen moduan.

4. grafikoan, euskararen erabilera azter dezakegu jatorriaren arabera. Europa Mendebaldeko populazioa da euskara gehien erabiltzen duena komunikazio hizkuntza bezala, hots, jatorri horretako % 11,3k. Ondoren, Senegal -% 8,4-, Txina -% 8,2- eta Errumania -% 7,9- herrialdeetako biztanleak dauzkagu. Gutxien erabiltzen dutenen artean, Paraguai -% 0,2- eta Latinoamerikako gaineko herrialdeetatik etorritakoak -% 2- izango genituzke.

4. GRAFIKOA. ETORKINEN EUSKARAREN ERABILERA JATORRIAREN ARABERA. 2018.




Datu horiek ikusita, pentsa daiteke gaztelania ama-hizkuntza izatea traba bat izan daitekeela euskara erabiltzeko. Agerikoa da horrek eragina izan dezakeela, baina ezin dira beste aldagai batzuk ahaztu grafikoen ikusten den errealitatea hobeto ulertzeko; eta horien artean, etorreraren urtea edota hainbat jatorriren kokapen geografikoa kontuan hartu behar ditugu. Latinoamerikako jatorria duten hainbat etorkin azkeneko urteetan iritsi dira; era berean, zenbaitetan, eremu ez-euskaldunetan bizi dira. Horrek guztiak ere eragina dauka datuak interpretatzerakoan.

Beraz, ondorioztatu dezakegun lehenengo ideia da etorkinek euskara gutxi erabiltzen dutela. Dena den, ezin dugu ahaztu Euskal Herrian bizi diren etorkinen kopuru handienak eremu ez-euskaldunetan bizi direla. Nolabaiteko asimetria dago euskararen mapa soziolinguistikoaren eta etorkinen maparen artean. Hori ezin da inondik inora ahaztu, etorkinik gabe geneukan errealitateak gaur egungo errealitatea baldintzatzen baitu, eta euskara gutxi erabiltzen den lekuetan zaila izango da etorkin batek euskara ikastea.

Hori ikusirik, pentsa dezakegu baikor izateko aukera gutxi dagoela. Hala ere, gauzak ez daude hain garbi. Pentsatzen badugu etorkinek euskara ikasiko dutela, argi dago aurreko paragrafoetan aurkeztu diren datuak oso onak ez direla. Baina hurbilpen hori egokia al da? Etorkinek euskara ikasiko al dute? Beste garai bateko etorkinekin, Espainiako beste erkidegoetatik etorri zirenekin, hain zuzen, gertatu dena adibidetzat dugu. Oso gutxi ikasi zuten eta orain ere oso gutxi ikasiko dutela izan beharko litzateke abiapuntua, ez gustatuko litzazigukeen abiapuntua, baizik eta badena.

Eta hori horrelakoa bada, arreta beste esparru batzuetan jarri behar dugu, eskolan, hain zuzen ere. Beste garai batzuetatik ere, badakigu etorkinen seme-alabek euskara ikasi dutela eskolan. Hortaz, hizkuntza eredu matrikulazioen nondik norakoak aztertzea interesgarria izan daiteke (Eusko Jaurlaritza, 2018), hurrengo grafikoen ikusten den bezala.

Grafikoen agertzen diren datuak aztertu baino lehen, bertan agertzen diren hiru kategorien inguruko argipenak eskainiko dira. Horrela, bada, Eusko Jaurlaritza 2018. urtean egindako txosten horretan, lehenengo aldiz jasotzen dira etorkinei loturiko seme-alaba guztiak. Bertakoen kategoria bi gurasoak Espainian jaiotako taldea da, kopuru aldetik, ezbairik gabe handiena. Bigarren taldea jatorri atzeritarra duten ikasleena da, hau da, atzerriko nazionalitatea dutenek edota atzerrian jaiotakoek osaturikoa. Azkeneko kategorian, aldiz, aurrekoa biltzen da, baita ere euren gurasoetako bat –edo biak– atzerrian jaio diren ikasleena ere; horrela, eskoletan gertatzen ari den aniztasuna batzen da azken kategoria horretan.




hermes



hermes



5. GRAFIKOA. HIZKUNTZA EREDUEN MATRIKULAZIOA JATORRIAREN ARABERA. 2017-2018 IKASTURTEA.



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA.

■ A ■ B ■ D

Sailkapen hori garrantzitsua da; izan ere, txosten hori egin arte ematen ziren datu gehienak ikasle atzerritarrenak ziren, aniztasunaren zati bat bakarrik agertzen zelarik eta, horregatik, errealitatearen argazki txikitua ematen zuen, nonbait.

Datuei helduta, aipatzekoa da kategoria guztietan euskara nagusia den hizkuntza ereduak nagusitzen direla. Bertakoen artean, D eta B ereduak matrikulazio guztien % 95,7 osatzen dute; orobat, *aniztasuna* izendatu dugun taldean, bi eredu horiek % 95,2 osatzen dute eta soilik jatorri atzerritarra dutenen artean jaisten da zertxobait (% 90,6).


A ereduari erreparaturik, indar txikia daukala ikus dezakegu; soilik jatorri atzerritarra dutenen artean igotzen da ehunekoa –% 8,7–, baina betiere oso kopuru apaletan. Hori azaltzeko, kontuan hartu behar dugu talde horretako zenbait nerabe edo gazte izanda etortzen direla eta horrek ere baldintzatu egiten du matrikulatzeko modua eta irizpideak.

Lehen aipatu bezala, hizkuntza ereduaren azuzian, ezin dugu ahaztu euskararen mapa eta zenbait lekutan A eredu ia desagerturik dagoela –Gipuzkoan eta, maila apalagoan, Bizkaian– eta beste batzuetan oraindik baduela indar apur bat –Arabara–, 6. grafikoan ikusi daitekeen moduan.

Arabara, A eredu nagusi da –% 35,6– heldu berrientzat –ohiko matrikulazio epeaz kanpo–, baina Gipuzkoan kopuru hori % 2,8koa da, D eredu hedatuena izanik, % 72,7 betetzen duela. Beraz, oso errealitate ezberdinak topa ditzakegu lurralde historikoaren arabera.

Dena den, datuek esaten digutena da atzerrian jaiotako gurasoen seme-alaba gehienak B eta D ereduetan matrikulatzen ari direla. Beraz, orain dela urte batzuk indar gehiago izan zezakeen ideiak, etorkinen seme-alabak A eredu matrikulatuko zirela, alegia, baina gaur egun ez du sostengu empirikorik. Eta zentzu horretan, aztertu diren azkeneko datu horiek baikorrak izateko modua ematen digute.

6. GRAFIKOA. IKASLE ATZERRITAR IRITSI BERRIEN BANAKETA HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA ARABA ETA GIPUZKOA. 2017-2018.



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA.

■ A ■ B ■ D

Miraririk ez da egongo, eta beste garai batzuetan bezala, etorkinen seme-alaben euskara maila guraso euskaldunen seme-alabena baino apalagoa izango da, baina horrek ez du esan nahi ikasi egingo ez dutenik; eta berriz ere aipagarria da azken hiruzpalau hamarkadetan gertatu den prozesua eta zer nolako emaitzak atera diren. Ildo horretan, euskara eta immigrazioarekin egun gertatzen ari dena orain 30-40 urte jazo zen beste erkidego batzuetatik etorritakoen seme-alabekin.

4. HAINBAT ONDORIO

Artikulan, euskara eta immigrazioari buruzko hainbat datu aztertzen saiatu gara. Lehenik eta behin, iritzi eta usteei begira. Horren harira, euskal gizarteak ez du pentsatzen etorkinek arriskurik dakarkiotenik euskararen garapenari eta hori berri ona eta pozgarria dela uste dugu.

Bigarrenik, euskararen ezagutza eskasa da etorkinen artean; azken urteetan, ezagutza handitu den arren, gaztelania da nagusi eta etorkin gehienek hizkuntza hori ikasten dute, baina ezin dugu ahaztu EAEko etorkinen erdiak ia-gaztelaniaz badakiela hona etorri baino lehen. Ezagutza eza hori ez genuke ondorio ezkor gisa interpretatu beharko, baizik eta gizarte errealitatearekin lotuta dagoen ondorio gisa. Gaztelaniak –edo frantsesak– gurean askoz ere praktikoagoak dira ia leku guztietan gizarteratzeko zein laneratzeko eta hori ezin dugu ahaztu. Hasierrako abiapuntua izan behar dugu, beste erkidego batzuetatik etorri ziren etorkinen kasuan bezala, euskara oso gutxik ikasiko; eta horrek ez du esan nahi gauzak gaizki egiten ari direnik, ezinezkoa dena, ezinezkoa da.


Dena den, etorkin batek euskara ikasi nahi badu, ate guztiak irekita izan behar ditu eta baliabide guztiak eskaini behar zaizkio, baina jakinda hori salbuespena izango dela eta ez araua, gutxienez, Euskal Herriko eremu gehienetan.

Gainera, ez diezaiegun eskatu gure buruari eskatzen ez dioguna... Ematen du etorkinak iritsi baino lehen bertoko guztiok euskaraz dihardugula eta gaztelania eurak etorri eta gero agertu egin dela berriz gurean. Gure errealitate soziolinguistikoa zein den badakigu eta etorkinen etorrerarekin ez da asko aldatu. Beste era batera esanda, hipotesi zentzuzkoena da etorkin gehienek euskara ez dutela ikasiko; horrela, lehenengo belaunaldia, hein handi batean, belaunaldi galdua izango da euskarari begira.

Baina bigarren belaunaldian dago erronka, etorkinen seme-alabekin, hain zuzen ere, eta hor lehenengo belaunaldiak badu zeresana. Zentzu horretan, agian ez du pena merezi hainbeste ahalegin egitea etorkinek euskara ikas dezaten –nahiz eta ikasi nahi duenak alfonbra gorria izan behar duen–; eta bai ikus dezaten zer garrantzitsua izango den euren seme-alabentzat.

Euskal Herriko hizkuntza bat delako eta integrazioarako tresna garrantzitsua delako; baina ez genuke ahaztu behar gizarte-mailari begira euskarak izan dezakeen indarra eta eragina. Euskal Herrian bizi diren etorkinen zati garrantzitsu bat behe-mailakoak dira (Aierdi, 2014) eta behe-mailakoentzat euskarak gizarte-igo-gailuarena egin dezake oso modu argian. Gaur egun, administrazio publikoan lan egiteko –eta beste hainbat sektoreetan ere– euskara derrigorrezkoa da eta behe-mailakoentzat administrazio publikoari loturiko lanpostuak dira sarritan gizarte-goranzko mugikortasuna izateko aukera nagusietako bat. Hori ere ikusi egin dugu dagoeneko beste erkidego batzuetatik etorri ziren etorkinen seme-alabekin –ni tar-teko–.

Dinamika sozial hori guraso etorkinek argi izan dezaten saiatu beharko ginatke, horren ondorioz, euskararen aldeko apustu sendoa egin dezaten. Eta apustu sendoa euskara oinarri duten eskoletako hizkuntza ereduak izan behar dira. Eta hor ere datuak nahiko baikorrak dira, B eta D ereduak dira nagusi



hermes



hermes



etorkinen zein horien seme-alaben artean (Moreno, 2017). Honezkero, hemen jaioren diren etorkinen seme-alaben eta bertokoen matrikulazio datuak oso antzekoak dira. Dena den, talde batzuetan, nolabaiteko jarrera ezkorak antzeman dira zenbait kasutan (Fouassier, 2017), eta horiei aurre egiteak berebiziko garrantzia du.

Diskurtso pragmatikoa eman dezakeen arren, gizarte-geruzapena ezin dugu alde batera utzi euskara etorkinen artean sustatzeko erabili behar diren estrategietan pentsatzen dugunean, eta horrek goranzko gizarte mugikortasunean izan dezakeen indarra azpimarratu behar dugu.

Lehen aipatu bezala, etorkinen seme-alaben euskara maila guraso euskaldunak dituzten umeena baino apalagoa izango da gehienetan, baina hori normala da, lehen gertatu da eta orain ere gertatzen da. Gurean ere, eremu geografikoaren edo gurasoen euskara mailaren arabera, baditugu maila ezberdinak euskararen ezagutzari dagokionez eta inor ez da gehiegi asaldatu. Berriz ere ematen du etorkinei gehiago eskatu behar diogula.

Euskararekin, beste batzuetan gertatu den bezala, ibaiaren irudia datorkigu burura. Ibaia txikia denean, ur emari txikikoa eta indar handikoa da; handiagoa denean, askoz ere zabalagoa eta abiadura apalagoa.

Erabaki beharko dugu euskararentzat zer nahi dugun, eta gure kasuan, argi dago etorkinen etorrera aukera bat dela, ez mehatxu bat, aukera euskararen urak zabaldu eta euskal hiztun gehiago izateko. Eta hori lortzeko eskola da joko-zelaia, partida bertan dago. Euskal hezkuntza sistemak etorkinen seme-alaben nolanhiko euskalduntzea lortzen badu, bide onetik joango gara.

Euskararen munduan dihardutenentzat gogorra eta nekeza izan daiteke behin lorpen batzuk eskuratuta, berriz atzera egin beharra eta orain dela 30-40 urteko egoerara bueltatzea zenbait kasutan, baina euskararen ezaugarriak direla eta, egoera hori behin baino gehiagotan gertatuko da. Hizkuntza txikia izaki, askotan, korrika egin behar da etengabe berdinketa besterik ez lortzeko eta oso gutxitan irabazteko, baina hori da patua eta, zenbaitetan, hori onartzea ez dago gaizki; are gehiago globalizazio garai hauetan. Horregatik, nahiago hiztun gehiago lortzea. Amaitzeko, immigrazioaren eta euskararen egoerari buruzko iritzia bi hitzetan eman beharko bagenu, honako hau esango genuke: *Argiak ilunak baino gehiago, auke-rak arriskuak baino indartsuagoak*.

BIBLIOGRAFIA

- Aierdi, Xabier (2014). "Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbibalentziaren presentzia". *Euskera*, 59 (2): 503-544.
- EUROPAN BATZORDEA (2011). *Qualitative Eurobarometer Migrant Integration. Aggregate Report*, maiatza in ec.europa.eu/public.../ql_5969_migrant_en.pdf
- Eusko Jaurlaritz (2018). *Atzeritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.
- Eusko Jaurlaritz (2019). *Encuesta de la Población Inmigrante Extranjera 2018*, https://www.euskadi.eus/web01-s2enple/es/contenidos/estadistica/epie_tablas_estad_2018/es_def/index.shtml
- Fouassier, Maite (2017). "Aniztasuna ikasgeletan: hezkuntzaren alorreko ahotsak". *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*. Bilbo: Ikuspegi. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P2_CAP1_voces_educacionEUS.pdf
- Ikuspegi (2018). *Barometroa. Jatorri atzeritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2019/bar_CAE_2019_EUS.pdf
- Moreno, Gorka (2017). "Adituen Ikuspegia". *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*. Bilbo: Ikuspegi. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P1_CAP3_personas_expertasEUS.pdf

